



BERGARAKO UDALA

UDAL ERAIKINETAKO GARBIKETA-PREMIEI ERANTZUTEKO GARBITZAILEEN LAN-POLTS OSATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

=====

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da **udal eraikinen garbiketa egiteko premiei erantzuteko aldi baterako langileak kontratatzeko eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatzea**, lehiaketa-oposizioaren bidez. Deialdi honetatik sortutako lan-poltsa egun indarrean dagoenaren osagarria izango da. Era berean, kale-garbiketako peoi espezialisten lan-poltsa ere eratuko da, eta egun indarrean dagoenaren (2022LAAU0012) osagarria izango da.

Lanpostua sailkapeneko **E sailkapen-mailakoa** da eta 6. mailari dagokion soldata-maila du. Halaber, 1. hizkuntz eskakizuna dagokio, ez derrigorrezkoa.

Lan-poltsen iraunaldia urtebete batekoa izango da, horiek osatzen direnetik, eta urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, betiere Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak besterik erabakiko ez balu.

Lan-poltsa espezifikoak osatzen badira, hasierako urtebetea pasatu ondoren azken hauek lehentasuna izango dute dagokien kontratacio-premietarako.

2.- Betezunak

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Udal eraikin eta instalazioen garbiketak egitea (ohiko garbiketa eta garbiketa orokorrak), hau da, dagozkien eraikuntzetan, instalazioa bera, barruko altzariak eta elementu guztiak garbitu; eta kasu bakoitzean horretarako emandako tresneria eta garbiketarako aginduak jarraituko dituzte.
- Agorrosingo kanpoko igerilekuaren eremuaren garbiketa egitea, uda sasoian.
- Arduradunak agindutako lanak egin, betiere bere lan-mailakoak izanik, eta agindutako moduan egin. Lanpostuarekin eta kategoriarekin zerikusia izanik, zerbitzuburuak agintzen dizkion beste batzuk.

Halaber, kale garbiketako peoien eginkizunei aurre egiteko lan-poltsa osatuko denez, honako hauek dira egitekoak, besteak beste:

1. Kaleak, plazak eta bideak garbitu eskoba eta eskoboiarekin.
2. Kaleak haize-makinarekin garbitu.
3. Lorategiak eta parkeak garbitu.
4. Auzoak garbitu.
5. Estoldak, saretak eta arketak garbitu.
6. Gatza bota elurteetan eta izozteetan.
7. Belar-sasiak kendu eta zakarrontziak hustu.
8. Kartelak, pankartak eta pintadak kendu.
9. Presio-ekipoarekin kaleak eta espaloia garbitu.
10. Kale-garbigailuarekin lanak egin, arduradunak agindutakoan.
11. Hildako animaliak erretiratu.
12. Arduradunak agindutako lanak egin, betiere bere lan-mailakoak izanik, eta agindutako moduan egin.

3.- Izangaiet bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie, deialdian parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiet:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Eskola-ziurtagiria edo maila bereko titulaziona izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akatsfisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 1. Hizkuntza Eskakizuna ez derrigorrezkoa.
- g) Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko tasa ordaindu izana.

Azterketa egiteko tasa (10,75 euro) ordaintzeari dagokionean, beti transferentzia bidez egingo da eskabideak egiteko aurkeztekoepea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia adierazi beharko dira.

Transferentzia agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Ordainketa eskaerak egiteko epean egin beharko da kontu korronte honetan:KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Parte hartzeko a), b), c), f) eta g) ataletan jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak eskaera-orriarekin batera aurkeztuko dira. Kopiak izango dira.

4.- Eskabideak

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira **2023ko ekainaren 8a arteko epean.**

Eredu ofizial hori oinarri hauei erantsirik doa, eranskin gisa; eta eskuratu ahal izango da, halaber, Bergarako Udaletxeko Bergararren Arreta bulegoan eta Udalaren webgunean (www.bergara.eus).

Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa honela aurkeztuko dira:

- a) Eskaera elektronikoa, egoitza elektronikoan:

<https://www.bergara.eus/laneskaintza>



Aurkezpen elektronikoa egiteko, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko duzu (b@kQ, NAN elektronikoa, etab.)

b) Aurrez aurreko eskaera:

- B@Z Arreta Zerbitzuan, San Martin Agirre plazan kokatuta. (8:00etatik 15:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera)
Eskabidea B@Z Arreta Zerbitzuan aurkezteko, hitzordua eskatu behar da <https://hitzordua.bergara.eus> helbidean.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaien adierazi beharko dute deialdiko Bigarren Oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guziak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia; edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena, beste estatu bateko hautagaien kasuan.
 - Eskolaratze ziurtagiriaren tituluaren fotokopia.
 - Kasua hala bada, 1. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela edo euskarako ziurtagiri edo titulu baliokideetakoren bat badaukala egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
 - Deialdian parte hartzeko Bergarako Udalak Zerga Ordenantzan aurreikusitako azterketa-eskubideengatiko 10,75 euroko tasa ordaindu izanaren agiria eta, hala badagokio, hobaria justifikatzen duen dokumentazioa ere.
- c) Hautagaien adierazi beharko dute Euskadiko Komunitate Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira (urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearena).

Izan ditzaketen egitezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak zehatz adierazi ez izana, horiek egiazatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana, edo oinarriean adierazitako behar beste informazioa ez duten agiriak. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

Datu pertsonalak babestea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioa librarei lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebehar baten baitan tratatzen direlako, eta baita, datuak beharrezkoak direlako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko tratamendua beharrezkoa delako. Halaber, izangaien berariazko baimena eman beharko



dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa izango da administrazio publiko horiek emplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre Plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga, 71 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduarekin lotutako edozein afera dela eta, honako posta helbidera mezua bidalita: dbo@bergara.eus.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak **ekainaren 12an** jarriko dira ikusgai **Bergarako Udaleko iragarki-taulan** eta Bergarako Udalaren web-orrian. Udalak bi egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko.

Behin-behineko zerrendak, besterik gabe, behin betikotzat joko dira erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebaZen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. EbaZen horren bidez, behin betiko zerrendak onetsiko ditu Udalak, eta udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian ere argitaratuko ditu.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzien errekursoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan; eta horretarako epea bi hilabetekoia izango da, onartuen eta baztertuen zerrenda **Bergarako Udaleko iragarki-taulan** argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurso aurkez dezan.

Aldez aurretik, eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekursoa jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. **Osaera:** Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikulan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikulan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikulan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariek proposatutako batek hartuko du parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda udalaren iragarki taulan eta Bergarako udalaren web-orrian argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariek parte har dezakete **begirale** moduan.

6.2. **Espezialitatea:** Epaimahaiaaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto-eskubidea duten kide guzti-guztiekin izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza-arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. **Abstentzia eta errefusatzea.** Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikulan ohartemandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaien mahaikideak ezetsi ditzakete aipatutako legearen 24. artikulan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. **Aholkulariak:** Aholkulari espezialistik egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak



programatzeko edo ebaluatzeako. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan lagunza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze-ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeo neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

- a) Epaimahaiaaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren araberakoa izango da. Epaimahaia ezingo da osatu, ezta jardun ere, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuanhartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta bota izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.
- b) Epaimahaia, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.
- c) Epaimahaia ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiai.
- d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzaileak diren proba guztiak, deialdia bete gabe geratu dela aitortuko da.

7.- Hautaketa-prozedura:

Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako udalaren web-orrian argitaratuko dira ondorengo ariketak egiteko deialdiak, eta han adieraziko da azterketak zein egun, ordu eta tokitan egingo diren.

Ondorengo deialdiak ere Udaleko iragarki-taulan eta Bergarako udalaren web-orrian iragarriko ditu.

- Oposizioaldia:

Ondoren aipatzen diren ariketez osatuko da:

— Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Froga teoriko-praktikoa: Epaimahaia erabakiko dituen **eraikinen garbitzaileen** lanpostuaren eginkizunekin zerikusia du(t)en ariketa(k), teoriakoak edo/eta praktikoak egin beharko dituzte.

Froga honetan gehienez **40 puntu** lortu ahal izango dira. Prozesuan aurrera jarraitzeko atera beharreko puntuazioa epaimahaia erabakiko du eta azterketa-egunean emango du jakitera, baina ez da inoiz izango % 50etik beherakoa.

Proba hau **2023ko ekainaren 14an egingo da onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera argitara emango den ordutegian.**

Azterketak edo ariketak banan-banan egitekoak direnean, " **L” hizkiaz** hasten diren abizenetik aurrera hasiko dira eta Udalak argitara emango du izangai bakoitza zein ordutan egen beharko den.

— Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Hautagai guztientzat: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko probak.

Hautagaia lanpostuaren profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzent diren ebaluatzena bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Probek elkarrizketa ere izan dezakete.

Bigarren ariketa honi **30 puntu** emango zaizkio gehienez.



Proba hau **2023ko ekainaren 19ko astean egingo da, data zehatza aurreko frogaren emaitzekin argitaratuko da.**

- Lehiaketa fasea:

Oposizio fasea gainditu duten izangaiak lehiaketa fasera igaroko dira.

Eskabidean adierazitako merezimenduaak dira bakarrik baloratuko direnak, eta beti ebaluatuak izateko oinarri hauetan adierazitako agiriak eta WEB orrian iragarpen bidez emandako epean aurkezten badira.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduaak ezta aurkeztutako dokumentuekin egiaztatu/entregatu ez direnak ere.

Dokumentu horiek fotokopiak izango dira eta honako hauek izan beharko dira gutxienez eta ezinbestekotzat izanik agiri mota eta edukiari dagokienean:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta egindako garbiketak eta lanpostuaren funtzioka.

Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientearen ageri diren datuen arabera ebaluatuuko dira.

Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak (betetako funtzioak zehaztuta) eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira.

Kasu guztietai, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan bai enpresa pribatuan egindako lana ziurtatutzat konsideratu dadin.

2.- Prestakuntza. Emandako ikastaroak izango dira eta bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jaso beharko dute baloratuak izateko.

Informazio hori jasotzen ez duten agiriak ez dira kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebatzeko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

Fase honetan epaimahaiak ondorengo merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta bakarrik, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira eskabideak aurkezteko epearen barruan, eta betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuko delarik.

Lehiaketaldian gehienez ere **22 puntu** lortu ahal izango dira.

— Eraikinetako garbitzaile-lanetan egindako lana, Administrazio Publikoan edota beste inoren kontura eta lan-kontratuarekin izan denean: Gehienez ere **10 puntu arte**, hileko 0,10 puntu (%100eko jardunean denean edo zati proporcionalean).

Baloratuko dira garbiketa-enpresen kontura kontratatuta egindako garbiketa hauek:

- 1.- Eraikin publikoak (eskola, liburutegi, administrazioen bulegoak, kiroldegiak...)
- 2.- Erabilera publikoko eraikin edo lokalak (komun publikoak, ludoteka edo antzekoak...)
- 3.- Industria, pabilioi, merkatal lokal eta antzeko erabilera anitz eta handiko lokalak.



4.- Halaber, etxe partikularak, udaleko etxez etxeko zerbitzua edo bestelako garbiketa batzuk egin izana, hau da, eraikinaren garbiketaz gain beste zerbitzu edo lan osagarri batzuk egin direnean (pertsonen higienea, jana prestatu...). Horien puntuazioa hilekoarentzat aurreikusitakoaren % 50ekoa izango da.

- Kale-garbiketako lanetan egindako lana, Administrazio Publikoan edota beste inoren kontura eta lan-kontratuarekin izan denean: Gehienez ere **6 puntu arte**, hileko 0,10 puntu (%100eko jardunean denean edo zati proportzionalean).
- Merezimendu horiek egiaztatu beharko dira lan egindako enpresak egindako ziurtagirien bitartez edo zerbitzuak bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez, eta Gizarte Segurantzak emandako lan-bitztaren agiriarekin lagunduta. Egiaztagirietan betetako funtzioak zehaztu beharko dira.
- Erakunde ofizialek edo haien homologatutakoek Laneko arriskuen prebentzioaren arloan edo beste lanarekin zerikusia duten eginkizunei buruz emandako ikastaroak edo mintegiak egitea, gehienez ere **2 puntu** arte baloratuko da. Ikastaroek gutxienez 5 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 5 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.
- Lehen hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila izatea: **5 puntu**. Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaiak proposaturiko idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da. Ez dute proba hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 1. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirlaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.
- Gida baimena izatea: **5 puntu**

8. Azterketen fasearen iardunbidea.

1.- Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki dezake ariketak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz bestela egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

2.- Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketen faseko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna berma dadin, bai halaber ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzendua izan daitezen.

3.- Baldin eta hautagairen bat Epaimahai Kalifikatzailearen deialdira agertzen ez bada hark adierazitako lekuak, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

Haurdunaldia eta edoskitzea. Haurdunaldian edo edoskitze-aldian dauden emakumeek eskatu ahal izango dituzte egokitzapen materialak; horretarako, aurretiazko jakinarazpena egin beharko diote Langileria eta Antolaketa Arloari, gutxienez proba egin baino bost egun baliodun lehenago. Emakumezko hautagairen batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldiko arriskua edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa-prozesua burutu edo hautaketa-prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzaean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko du eta geroratutako faseak gainditu beharko ditu; baina fase horiek ezingo zaizkio gehiegiz atzeratu, gainerako hautagaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzen. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroratutako probak.

Kalifikazio-epaimahaiak egokitu egingo ditu probak egiteko denbora eta/edo bitartekoak desgaitasun egiaztatua duten pertsonentzat, haien aldez aurretik eskatuta, aukera-berdintasuna bermatuz eta eska daitezkeen edukiak edo gaitasun-maila indargabetu gabe.

4.- Kanporatzekoak diren ariketetako bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udalaren iragarpeneren taulan eta udalaren web-gunean (www.bergara.eus) argitaratuko du ariketa gainditu duten hautagaien lista.



Probak egiteko egunean errekursoaren bat ebatteke badago, interesdunak kautelaz egin ahal izango ditu, baina ez dute baliorik izango errekursoa ezesten bada.

Hautagaien jokabide irregularrak. Epaimahaiak hautaketa-prozesutik baztertzeko ahalmena izango du edozein motatako iruzurrik egiten dituen pertsona oro, edozein proba normal egitea eragozten badu edo berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipoak urratzen baditu. Epaimahaiburuak berehala jakinaraziko dizkio jarduketa horiek Langileria eta Antolaketa Arloari, eta bilkurako aktan jasoko ditu. Era berean, hautaketa-prozesua osatzen duen edozein proba egiten den bitartean, ez da onartuko arestian aipatutako printzipoak urratzeko erabil daitezkeen gailu edo bitarteko teknologikoak edukitzea edo erabiltzea; jokabide horrek berehalako bazterketa eragingo du.

9.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkeria.

Puntueta berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeren:

- a) Proba praktikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba psikoteknikoan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Gida baimena izatea.
- d) Euskara egiaztu izana.
- e) Esperientzia gehien duena.
- f) Aurreko denetan berdinketa balego zozketa bidez egingo da.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gainditu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuen araberako hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienekora.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lan-poltsarako gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, lan-poltsa hutsik geratzen dela aldarrika dezake.

Lan-poltsarako proposatuak izan diren izangaiak, jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrieta eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztea eskatu ahalko zaie.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiak agiriak aurkezten ez baditu, bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira eta ez da lan-poltsarako izendatuko edo kanporatzea erabakiko du alkateak.

10.- Lan-poltsak. Kontratazioa-Praktikaldia

Prozesuko lehen eta bigarren ariketa gainditu duten hautagaiekin, udal eraikinen garbitzaileen lan-poltsa osatuko da. Zerrenda hau osatzeko ez da kontuan hartuko kale-garbiketan emandako zerbitzuei dagokien esperientziaren puntuazioa.

Lan-poltsa hau egun indarrean dagoenaren osagarria izango da.

Alkate-udalburuak dagokien hurrenkeran deituko ditu, eta eskainitako lan-kontratuari uko egiten diona zerrrendaren azken tokian jarriko da, edozein dela emandako arrazoia.

Izangai bakoitzari bi hilabeteko frogaldia egingo zaio nahiz udal eraikinetako garbitzaile nahiz Agorrosingo garbitzaile lanei dagokien kontratazioa izan lehenbiziko bi hilei dagokien kontratua.

Halaber, kale-garbiketako peoi espezialista aldi baterako kontratatzeeko premiei aurre egiteko bigarren lan-poltsa bat osatuko da, egun indarrean dagoenaren osagarria. Zerrenda honetan lehentasuna izango dute gidabaimena dutenek eta merituen artean eraikinen garbiketa-lanetan izandako esperientziari dagokion puntuazioa kenduko da.



Kale-garbiketako peoi espezialistaren lanetarako aldi baterako lehen kontratua egiten zaienean, edo hurrengo kontratuarekin gehituta bi hilabetetik beheragoko iraupeneko kontratuak direnean, bi hilabeteko frogaldia izango dute eta gainditzen ez badute lan-poltsa honetatik kanpo geldituko dira eta, beraz, udal eraikinetako lan-poltsarako baino ez zaie deituko.

Frogaldiek hautaketa-prozesuaren atal baten izaera izango du, horren azken balorazioa gai/ez-gai izango da, eta Udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txosten egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- Lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- Lantaldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin-behineko ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Halere, eta kontratua hasi aurretik (edo frogaldia bukatu aurretik presazko kontratazioa izan denean) Bergarako Udalak kontratatutako mediku-zerbitzuak *bere osasun egoera lanpostu ezberdinengi* kizunak betetzeko gai dela egiazatzeko behar diren osasun azterketak eta frogak egingo dizkio, eta izangaiak horiek egiteari uko egingo balio edo gai ez dela emango balu, kontratua bertan behera laga eta lan horri dagokion lan-poltsatik kanpo utziko du udalak.

11.- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaien, kontratatuko direnak eta lan-poltsarako izendatuko direnak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta hiru hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du udalak.

12.- Prozesuaren argitalpenak

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizio aldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko iragarki taulan eta web-orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangaiak edo parte-hartzalek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

13.- Gorabeherak

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

14.- Inpugnazioak

Honako deialdi hau, beronen oinarriak eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dira, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako epeetan eta forman.



AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA CREACIÓN DE BOLSA DE TRABAJO DELIMPIADORES/AS PARA RESPONDER A NECESIDADES DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS MUNICIPALES

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria la **creación de una bolsa de trabajo de limpiadores/as de edificios**, mediante concurso-oposición, **para la contratación de personal temporal para responder a las necesidades de limpieza de edificios municipales**. La bolsa de trabajo resultante de esta convocatoria será complementaria a la vigente en la actualidad. Asimismo, se creará también una bolsa de trabajo de peones especialistas de limpieza viaria, que será complementaria a la actualmente vigente (2022LAAU0012).

El puesto de trabajo está incluido en el **grupo de clasificación E**, con un nivel retributivo 6. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 1, con carácter no preceptivo.

La bolsa de trabajo tendrá una vigencia de un año, a partir de su creación.

El plazo de vigencia de las bolsas de trabajo será de un año a partir de su creación, pudiéndose prorrogar anualmente, como máximo por otros cuatro años, siempre que no resuelva otra cosa la Alcaldía-Presidencia a propuesta de la Comisión de Organización.

En caso de que se conformen bolsas de trabajo específicas, una vez transcurrido el año inicial, estas últimas serán las prioritarias para las necesidades de contratación correspondientes.

2.- Funciones

Las funciones del puesto de trabajo objeto de esta convocatoria son, entre otras, las siguientes:

- Realizar las limpiezas (las ordinarias y las generales) de los edificios e instalaciones municipales, es decir, en los edificios que les correspondan, limpiar la instalación en sí misma, el mobiliario interior y todos sus elementos, debiendo seguir en cada caso las órdenes de limpieza asignadas y los útiles facilitados para la labor.
- En verano, realizar la limpieza de la zona de las piscinas exteriores de Agorrosin.
- Desempeñar las tareas que le encomiende su responsable, dentro de su categoría laboral, y del modo en que se le ordene. Otras tareas que les sean encomendadas por la jefatura del servicio en relación con su puesto y categoría.

Así mismo, dado que se creará una bolsa de trabajo para responder a cometidos de peones de limpieza viaria, sus funciones entre otras serían las siguientes:

1. Limpieza de calles, plazas y caminos con escoba y escobón.
2. Limpieza de calles con sopladora.
3. Limpieza de jardines y parques.
4. Limpieza de los barrios.
5. Limpieza de alcantarillas, rejillas y arquetas.
6. Esparrir sal en nevadas y heladas.
7. Quitar hierbas y matojos y vaciado de papeleras.
8. Quitar carteles, pancartas y pintadas.
9. Limpieza de calles y aceras con el equipo de presión.



10. Trabajos a realizar con la barredora cuando se lo ordene el encargado.
 11. Retirada de animales muertos.
 12. Las asignadas por su responsable relacionadas con su categoría, y realizarlas del modo asignado.
- Las relacionados con el puesto y categoría que les sean asignados por el jefe.

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en la convocatoria:

- a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

También podrán participar el cónyuge de las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separada de derecho, así como sus descendientes y los/las de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos/as descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. En caso de que resulten seleccionadas, y previamente a la firma del contrato, deberán acreditar que cuentan con autorización administrativa para ejercer la actividad objeto de dicho contrato.

Teniendo en cuenta que se trata de un puesto de contrato laboral, podrán participar en el proceso, además de las personas señaladas en los párrafos anteriores, los extranjeros que tengan su residencia legal en España.

En el momento de la contratación deberán acreditar el cumplimiento de los requisitos administrativos para desarrollar la actividad laboral

- b) Tener cumplidos los 16 años.
- c) Estar en posesión del Certificado Escolar o titulación equivalente.
- d) No padecer enfermedad ni impedimento físico o psíquico que le impida desempeñar adecuadamente las funciones propias del puesto de trabajo.
- e) No haber sido separado/a del servicio de cualquiera de los organismos de las Administraciones Públicas mediante procedimiento disciplinario, ni hallarse inhabilitado/a para ejercer en la administración pública.
- f) Perfil Lingüístico 1, no preceptivo.
- g) Haber abonado la tasa de derechos de examen, contemplada por el Ayuntamiento de Bergara en la Ordenanza Fiscal, para su participación en la convocatoria.

El pago de la tasa por realización de examen (10,75 euros) se realizará siempre mediante transferencia antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Al realizar la transferencia se deberá indicar obligatoriamente el número de expediente y el número de DNI de la persona que vaya a participar en la convocatoria.

El justificante de la transferencia se presentará junto con la solicitud.

El pago deberá realizarse dentro del plazo de presentación de solicitudes, en esta cuenta corriente:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Junto con el impreso de solicitud se deberán presentar copias de los documentos que acreditan el cumplimiento de los requisitos de participación recogidos en los apartados a), b), c), f) y g).

4.- Instancias

